*LANEKO SEGURTASUN OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA*
*INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORALES*

**PROGRAMA**

3113 LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

**ARDURADUNA**

48 OSALAN

OSALAN-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

HELBURUA

1. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA
2. LANKIDETZA ERAGILEEN ARTEAN
3. ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA LANKIDETZA
4. IKUSKARITZA ETA KONTROLA
5. PREBENTZIOA KUDEAKETAN INTEGRATZEA
6. PRESTAKUNTZA BEREZIA

7.- OSASUNAREN ZAINTZA ETA LLGG-EN PREBENTZIOA

8.- LAP-AREN ARLOKO JARDUNBIDEEN KALITATEA

9.- EZAGUTZA SORTZEA

10.- INFORMAZIO ETA SISTEMAK

11.- PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

BETETZE MAILA

1. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Laneko arriskuen prebentzioaren (LAP) kultura sustatu dugu hainbat dibulgazio-ekintzaren bidez. Ekintza horien artean, nabarmenena da Laneko Segurtasunari eta Osasunari (LSO) buruzko Osalanen III. ikastaroa, Donostian egindakoa, EHUren udako ikastaroen barruan. Edizio horretan, gai hauek jorratu ditugu: gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko sistema, batetik, eta ergonomia eta gihar eta hezurretako gaitzak, bestetik. 130 lagunek parte hartu dute, eta oso balantze positiboa egin dute.

Osalan komunikabideetan agertu da (prentsa idatzian orokorrean zein espezializatuan, irratian eta telebistan) LSOri buruzko mezuak eta ekitaldi interesgarriei buruzko informazioa zabaltzeko.

Herritarrek LAPari lotutako gaietan parte hartzea sustatu dugu. Osalanek are ekintza gehiago egin ditu sare sozialetan. Horren ildotik, YouTube kanalean sartu da. Erakundearen webguneak 1.180 bisita izan ditu, eta, hortaz, dibulgaziorako, prestakuntzarako eta intereseko taldeekin harremanetan jartzeko plataforma gisa finkatu da.

Instituzioek, gizarte eragileek, erakunde espezializatuek eta elkarte profesionalek prebentzioaren gainean antolatutako

**PROGRAMA**

3113 SEGURIDAD SOCIAL Y SALUD LABORALES

**RESPONSABLE**

48 OSALAN

DIRECTORA GENERAL DE OSALAN

OBJETIVO

1.- CONCIENCIACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN

2.- COLABORACIÓN ENTRE LOS AGENTES

3.- COMPROMISO Y COOPERACIÓN INSTITUCIONAL

4.- INSPECCIÓN Y CONTROL

5.- INTEGRACIÓN DE LA PREVENCIÓN EN LA GESTIÓN

6.- FORMACIÓN ESPECÍFICA

7.- VIGILANCIA DE LA SALUD Y PREVENCIÓN DE EEPP

8.- CALIDAD DE LAS ACTUACIONES EN MATERIA DE PRL

9.- GENERACIÓN DE CONOCIMIENTO

10.- INFORMACIÓN Y SISTEMAS

11.- DESARROLLO PERSONAL Y PROFESIONAL DE LAS PERSONAS

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1.- CONCIENCIACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN

Se ha fomentado la cultura de la prevención de los riesgos laborales (PRL) a través de diversas acciones divulgativas, siendo la más destacable la celebración en Donostia del III Curso Osalan de Seguridad y Salud Laborales (SSL) en el marco de los Cursos de verano de la UPV/EHU. Esta edición se ha dedicado al "Sistema de comunicación de sospecha de enfermedad profesional" y a la "Ergonomía y trastornos musculoesqueléticos" y ha contado con la asistencia de 130 personas, que han realizado un balance muy positivo.

Se ha mantenido la presencia de Osalan en los medios de comunicación (prensa escrita generalista y especializada, radio y TV) para difusión de mensajes sobre SSL e información sobre eventos de interés.

Se ha potenciado la participación de la ciudadanía en las cuestiones de PRL, incrementando la actividad de Osalan en las redes sociales, a la que se suma la entrada en el canal YouTube. Con 1.180 visitas, la web del Organismo se consolida como plataforma de divulgación, formación y contacto con los grupos de interés.

Se ha tomado parte en diversos eventos divulgativos sobre prevención, organizados por Instituciones, Agentes

hainbat dibulgazio-ekitalditan hartu dugu parte.

Prebentzio-ordezkariaren figura sustatu dugu. Langileei ordezkari horren zereginaren berri eman diegu, bai eta LAPari buruzko oinarrizko alderdien berri ere. Horretarako, 3.000 koaderno argitaratu ditugu, enpresetan banatzeko.

Lanbide-heziketako ikasleei LAPari buruzko prestakuntza ematen jarraitu dugu. Bisitaldiak antolatu ditugu: ikasleak Osalanen instalazioetara etorri dira, informazioa eta dibulgazio-materiala jasotzeko. 50 ikasle inguru etorri dira Bizkaiko Lurralde Zentrora.

Lan-ildo bat hasi dugu, LAPari lotutako ekintzetan euskararen erabilera sustatzeko. Datozen urte hauetan, lan-ildo hori sendotu nahi dugu.

Arlo horretan ezarritako helburuen betetze-maila oso egokitzat jo da.

## 2. LANKIDETZA ERAGILEEN ARTEAN

Osalanen Kontseilu Nagusiko 2 batzorde delegatuak —Prestakuntza Batzordea eta Gaixotasun Profesionalen Batzordea— 2 aldiz bildu dira. Bilera horietan, bertaratutakoei jakinarazi diete zer ekintza egin dituzten arlo horietan.

Harremanetan eta lankidetzan jarraitu dugu prebentzio-zerbitzuekin (PZ) besterenekin, gureekin eta mankomunatutakoekin. Sortutako lantaldeetan lankidetzan jardun dugu, proiektu jakin batzuk egiteko. Proiektu horiek oso emaitza onak eman dituzte osasun-zaintzaren eta arrisku psikosozialen arloan.

Lan Harremanen Batzordearekin genituen harremanak etenda daude oraingoz, legealdi-aldaketa dela-eta, baina berriro hasiko direlakoan gaude.

Ezarritako helburuen betetze-maila onargarria da.

## 3. ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA LANKIDETZA

Eusko Jaurlaritza inplikatu egin da laneko segurtasunarekin eta osasunarekin. Horren erakusgarri, arlo horretan eskudun diren organoetako ordezkari gorenak LAParen gainean egindako ekitaldietan izan dira.

Udal txikien kudeaketan LAPa sar dadila bultzatze aldera aurreko urteetan hasitako lan-ildoan lanean jarraitu dugu, eta PZ mankomunatuak sortzea sustatu dugu. Alde horretatik, lankidetza estutu dugu EUDELekin. Udaleko teknikariek amiantoari lotutako gaietan izan beharreko prestakuntzari heldu diogu EUDELekin batera.

Modu aktiboan lan egin dugu prebentzioa obra publikoetan integratzeko, azpiegitura handiko EAEko obretan LAParen segimendua egiteko lurralde-batzordeen bidez. Batzorde horietan daude, Osalanekin batera, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta beste erakunde eta enpresa publiko batzuk.

sociales, Entidades especializadas y Asociaciones Profesionales.

Se ha impulsado la figura del Delegado de Prevención, informando a los trabajadores sobre su papel, así como sobre aspectos básicos de la PRL. Para ello se han editado 3.000 cuadernillos para distribuir en las empresas.

Se ha continuado con la formación en PRL de los alumnos de Formación Profesional, organizando visitas de estos colectivos a las instalaciones de Osalan para recibir información y material divulgativo. Cerca de 50 alumnos han pasado por el Centro Territorial de Bizkaia.

Se ha iniciado una línea de trabajo para el fomento del uso del euskera en las actividades de PRL, que se pretende consolidar en años sucesivos.

El grado del cumplimiento de los objetivos establecidos en este ámbito se considera altamente satisfactorio.

## 2.- COLABORACIÓN ENTRE LOS AGENTES

Las 2 Comisiones Delegadas del Consejo General de Osalan -de Formación y de Enfermedades Profesionales- se han reunido en 2 ocasiones, en las que se ha informado a los asistentes de las acciones desarrolladas en estos campos.

Se ha mantenido el contacto y la colaboración con los Servicios de Prevención (SSPP) ajenos, propios y mancomunados, cooperando en los distintos grupos de trabajo creados para la ejecución de proyectos concretos, especialmente fructíferos en las áreas de vigilancia de la salud y de riesgos psicosociales.

Las relaciones con el Consejo de Relaciones Laborales han quedado momentáneamente en suspenso por el cambio de legislatura, pero con previsión de retomarlas.

Se considera aceptable el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.

## 3.- COMPROMISO Y COOPERACIÓN INSTITUCIONAL

La implicación del Gobierno Vasco con la Seguridad y Salud Laborales se ha evidenciado a través de la presencia de los máximos representantes de los Órganos con competencias en la materia en los eventos celebrados sobre PRL.

Se ha seguido avanzando en la línea de trabajo iniciada en años anteriores para potenciar la integración de la PRL en la gestión de los Ayuntamientos pequeños, favoreciendo la creación de SSPP Mancomunados. En este sentido, se ha estrechado al colaboración con EUDEL, con quien también se ha abordado la formación de los técnicos municipales en cuestiones relacionadas con el amianto.

Se ha trabajado activamente para la integración de la prevención en la obra pública, a través de las Comisiones Territoriales de seguimiento de la PRL en obras de grandes infraestructuras de la CAPV, en las que se encuentran presentes, junto con Osalan, el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, y otros organismos y empresas públicas.

"SAFERA - Europako Ikerketaren Koordinazioa, Hazkunde Adimenduna eta Iraunkorra Lortzeko" deritzon europar programa bultzatu dugu. Programa horren esparruan, ikerketa-proiektuak egiteko diru-laguntzen deialdiak egin ditugu, Europako 10 herrialde eta eskualderekin elkarlanean. Aurrekontua: 100.000 euro.

Se ha impulsado el programa europeo “SAFERA-Coordinación de la Investigación Europea en Seguridad Industrial para un crecimiento sostenible e inteligente”, en cuyo marco se han convocado subvenciones para proyectos de investigación, con un presupuesto de 100.000 euros y en colaboración con otros 10 países y regiones europeos.

Etengabe jardun dugu harremanetan eta lankidetzan Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzarekin eta Lan Ikuskaritzarekin, eta hainbat motatako ekintzak egin ditugu batera (dibulgazio-ekintzak, ekintza teknikoak eta abar).

La comunicación y cooperación con la Dirección de Trabajo y Seguridad Social y con la Inspección de Trabajo ha sido permanente, resultando de ella actuaciones conjuntas de distinta naturaleza (divulgativas, técnicas, etc.).

Oso harreman estuak izan ditugu Osasun Sailarekin. Harreman horien helburua da lantaldeak sortzea ekintza bateratuak sortzeko, eta, ildo horretan, ekintzak sortzen ari gara (gaixotasun profesionalaren susmoa jakinaraztea, lanari lotutako minbizia ikertzea...).

El contacto con el Departamento de Salud ha sido intenso, focalizado en la creación de grupos de trabajo para el desarrollo de actividades compartidas, en las cuales se está avanzando (Comunicación de Sospecha de EP, investigación del cáncer laboral,..).

Sailen arteko lankidetzari eutsi diogu LAPa sustatzeko; batez ere, lehen sektorean LSO sustatzea xede duten ITSAPREBEN eta NEKAPREBEN planei dagokienez.

Se ha mantenido la colaboración interdepartamental para la promoción de la PRL, especialmente en lo relativo a los planes ITSAPREBEN y NEKAPREBEN, enfocados a la SSL en el sector Primario.

Lankidetzan jarraitu dugu Kantauriko hiru autonomia-erkidegoekin, arrantzaren sektorean LAPa sustatzeko. Horren emaitza izan da arrantzaren sektoreko osasun-zaintzari buruzko gidaliburua, itsas zabaleko eta oso itsas zabaleko arrantzari buruzkoa.

Ha continuado el trabajo conjunto con las otras tres Comunidades Autónomas del Cantábrico para la PRL en el sector de la pesca, cuyo producto ha sido la 3ª parte de la Guía de Vigilancia de la Salud para el Sector, dedicada a las artes de altura y gran altura.

Orobat hartu dugu parte Lan Ministerioaren eta Osasun Ministerioaren lantaldeetan (lantalde psikosozialean, amiantoari, gihar eta hezurretako gaitzei, muga-balioei eta lehen sektoreari buruzko lantaldeetan, Europar Agentziarekiko lotura-batzordean...), informazioa trukatzeko eta ekintzak egiteko.

También se ha participado en los distintos Grupos de Trabajo (psicosociales, amianto, trastornos musculoesqueléticos, valores límite, sector primario, comité de enlace con la Agencia Europea, etc.) de los Ministerios de Trabajo y de Sanidad, para el intercambio de información y el desarrollo de actuaciones.

Amaitzeko, hainbat kontutan lankidetzan aritu gara Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin. Aipatzekoa da amiantoaren eraginez gaixotu diren langileak tratatze aldera izenpetutako hitzarmena.

Finalmente, se ha colaborado con el INSS en distintas cuestiones, destacando el desarrollo del Convenio suscrito para el tratamiento de los casos de trabajadores afectados por exposición al amianto.

Ezarritako helburuen betetze-maila oso egokitzat jo da.

Se valora como muy satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos fijados.

## 4. IKUSKARITZA ETA KONTROLA

## 4.- INSPECCIÓN Y CONTROL

Lan-agintaritzak hala eskatuta, amiantoa duten materialak kentzeko 338 lan-egitasmo aztertu ditugu (Araban 71, Bizkaian 99 eta Gipuzkoan 168). 268 landa-bisita egin ditugu (168 aldez aurreko bisita, eta 82 egiaztatze-bisita), plan horiek betetzen direla egiaztatzeko.

Se han examinado, a solicitud de la Autoridad Laboral, un total de 338 planes de trabajo para la retirada de materiales que contienen amianto (Alava: 71, Bizkaia: 99 y Gipuzkoa: 168), llevando a cabo 268 visitas de campo (168 previas y 82 de comprobacion) para verificar su cumplimiento.

Jarduerak egin ditugu Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuen jardueren berri izateko eta jarduera horiek kontrolatzeko. 26 zerbitzurekin jarri gara harremanetan (Arabako 8rekin, Bizkaiko 3rekin eta Gipuzkoako 15ekin), eta lan-agintaritzari informazioa eman diogu unean-unean.

Se ha actuado para conocer y controlar la actividad de los Servicios de Prevención Mancomunados, contactando con 26 de ellos (A: 8, B: 3 y G: 15) e informando puntualmente a la Autoridad Laboral.

Industria-segurtasunaren arloko Eusko Jaurlaritzako organo eskudunarekin lankidetzan jardun dugu, makinen segurtasunari buruzko Zuzentaraua betetzen dela ziurtatzeko eta kontrolatzeko, 2011n izenpetutako batera jarduteko protokoloaren garapena aplikatze aldera. 3 espediente izapidetu ditugu, lankidetza horren ondorioz.

Hainbat sektore eta jardueratako enpresetan izan gara, prebentzioaren arloan zer hutsune dituzten ikusteko eta aholkuak emateko hutsune horiek zuzendu ditzaten. Batik bat, lehen sektorean jardun dugu.

- 3.093 bisita egin ditugu hastear zirela jakin dugun eraikuntza-obretara, eta obretako kontratazioak eta azpikontratazioak kontrolatu ditugu.

- Lehen sektoreko, industriaren sektoreko eta zerbitzuen sektoreko zentro ireki berri bisitatu ditugu.

  Araba: 75 zentro ireki berri (6 lehen sektorekoak, 21 industriaren sektorekoak, 48 zerbitzuen sektorekoak)

  Bizkaia: 282 zentro ireki berri

  Gipuzkoa: 36 zentro ireki berri (lehen sektorekorik ez, 34 industriaren sektorekoak, 2 zerbitzuen sektorekoak).

- Amaitu dugu 2012an hasitako kanpaina, telekomunikazio-antenak instalatzen dituzten enpresei buruzkoa. 3 bisita egin ditugu, eta gidaliburu bat egin dugu sektorerako.

- 3 lurralde historikoetako industrialdeak xede dituen kanpaina. Guztira, 164 bisita egin ditugu (Araban 78, Bizkaian 17 eta Gipuzkoan 69).

- Lehen Sektorea:

  - 2 itsasontzi eta itsasbazterreko arrantzako armadore bisitatu ditugu.

  - Mahastizaintzaren eta ardogintzaren azpisektoreko 17 enpresari buruzko kanpaina (10ek ardoa ekoizten dute, eta 7k txakolina).

  - Osalanek eta Lan Ikuskaritzak, biek batera, basoari lotutako jardueretan diharduten enpresak bisitatu dituzte, eta jarduerak egin dituzte 15 baso-ustiategitan (10 Araban eta 15 Gipuzkoan).

  - Lehen sektoreko sasoikako lanaren kanpaina egin dugu Arabako lurralde historikoan. 2 udal kuadrilla bisitatu ditugu, bai eta 2 osasun-zentro eta 28 upategi eta kooperatiba ere (24 mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorekoak eta 4 patataren azpisektorekoak), informazioa emateko eta LAPari lotutako jarduerak ikusteko.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

5. PREBENTZIOA KUDEAKETAN INTEGRATZEA

Se ha colaborado con el Órgano competente del Gobierno Vasco en materia de Seguridad Industrial en la vigilancia y control del cumplimiento de la Directiva de Seguridad en lmáquinas, en aplicación del desarrollo del protocolo de actuación conjunta firmado en 2011. Se han tramitado 3 expedientes a resultas de dicha colaboración.

Se han visitado empresas de distintos sectores y actividades, con el objetivo de detectar sus deficiencias en materia preventiva y prestarles asesoramiento para subsanarlas. Especial incidencia se ha tenido en el Sector Primario.

- Efectuadas 3.093 visitas a obras de construcción de cuya apertura se ha tenido conocimiento, controlando a las contratas y subcontratas dentro de las obras.

- Visitados centros de nueva apertura correspondientes a los sectores Primario, Industria y Servicios.

  Alava: 75 aperturas (6 P, 21 I, 48 S)

  Biz.: 282 aperturas

  Gip.: 36 aperturas (0 P, 34 I, 2S)

- Finalizada la campaña iniciada en 2012 sobre empresas de instalación de antenas de telecomunicaciones con 3 visitas y la edición de una guía para el sector.

- Campaña focalizada en polígonos industriales de los 3 Territorios Históricos, con un total de 164 (A: 78, B: 17 y G: 69) visitas.

- Sector Primario:

  - Visitas a 2 buques y armadores de pesca de bajura.

  - Campaña sobre 17 empresas del subsector vitivinícola (10 cosecheras de vino y 7 de txakoli).

  - Visitas conjuntas de Osalan y la Inspección de Trabajo a empresas dedicadas a la actividad forestal, con actuación en 15 Explotaciones Forestales (10 en Álava y 5 en Gipuzkoa).

  - Desarrollo en el TH de Álava de la campaña de trabajo temporero en el sector Primario, con visitas a 2 Cuadrillas Municipales, 3 Centros de Salud y 28 Bodegas y Cooperativas (24 Subsector vitivinicola y 4 en subsector de la patata), para facilitar información y comprobar la actividad de PRL.

Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.

5.- INTEGRACIÓN DE LA PREVENCIÓN EN LA GESTIÓN

ETE-ei informazioa eta irizpideak emateko jarduerak egiten jarraitu dugu, laneko ekipoak erostean eta ekipo horiek instalatzeko, zaintzeko eta konpontzeko lanetan eta bestelako jardueretan prebentziozko kudeaketa egin dezaten. Aurreko urteetan hasitako gidaliburuak argitaratu eta zabaldu ditugu.

Jarduera-ildo bat finkatu dugu, LAPa genero-ikuspuntutik lantzeko:

• Berariazko lantalde bat sortu dugu, eta lantalde horrek egoera aztertu du, eta lan-egitasmo bat proposatu, hurrengo urteetan garatzeko.

• Hainbat dibulgazio-ekitalditan hartu dugu parte. Horien artean, aipagarriena da Emakundek berdintasunari, osasun psikosozialari eta bikaintasunari buruz antolatutako jardunaldia.

Osalanen jarduera-eremuetako bat da, aurreko urteetan bezala, errepideetako joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuen arazoa. Eremu horretan hainbat ekimen egin ditugu:

• Dibulgazio-ekitaldiak egin ditugu enpresako bideko segurtasunari buruz, Eusko Jaurlaritzako beste organo batzuekin eta beste instituzio, erakunde eta enpresa pribatu batzuekin lankidetzan.

• Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren (CNSST) bideko lan-istripuen prebentziorako lantaldean parte hartu dugu.

• 2012ko datuekin eguneratu dugu Osalanen azterlana, EAEn errepideetako joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuei buruzkoa.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

Se ha continuado con las actuaciones encaminadas a facilitar a las Pymes información y criterios para la gestión preventiva en actividades como la compra de equipos de trabajo y las operaciones de instalación, mantenimiento y reparación de dichos equipos. Se han editado y difundido las guías iniciadas en años anteriores.

Se ha consolidado una línea de actuación para la PRL con perspectiva de género:

• Se ha creado un grupo de trabajo específico, el cual ha realizado un análisis de la situación y ha propuesto un plan de trabajo a desarrollar en los próximos años.

• Se ha participado en eventos divulgativos, siendo el más destacable la Jornada sobre “Igualdad, salud psicosocial y excelencia”, organizada por Emakunde.

El problema de los accidentes laborales ocurridos en los desplazamientos por carretera ha constituido un ámbito de actuación de Osalan, al igual que en años anteriores, en el que se han desarrollado distintas iniciativas:

• Participación en eventos divulgativos sobre seguridad vial en la empresa, en colaboración con otros Órganos del Gobierno, Instituciones, Entidades y empresas privadas.

• Asistencia al grupo de trabajo de la CNSST para la prevención de los accidentes de trabajo viales.

• Actualización con datos de 2012 del estudio de Osalan sobre los accidentes laborales que se producen en los desplazamientos por carretera en la CAPV.

El grado del cumplimiento de los objetivos establecidos se considera satisfactorio.

## 6. PRESTAKUNTZA BEREZIA

Osalanek urrutiko ikaskuntza bultzatu du, erakundearen webgunearen bidez LAPari buruzko ikastaroak emanez. Ildo horretan, zenbait teknikari gaitu ditugu Moodleren "open source" formatua kudeatzeko, eta lehenengo ikastaroa diseinatzen hasi gara. Ikastaro hori 2014an irakasteko asmoa dugu.

Prebentzio-ordezkariak prestatzeko tresnak lantzen jarraitu dugu. Eskuliburua amaitu dugu, eta 2014ko otsailean egin asmo dugun jardunaldi batean aurkeztuko dugu.

Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza abian da, Bilboko Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Medikuntza Zientzien Akademiarekin elkarlanean.

## 6.- FORMACIÓN ESPECÍFICA

La actuación de Osalan se ha dirigido a potenciar la formación e-learning, mediante la impartición de cursos sobre PRL a través de la web del Organismo. En esta línea, se ha habilitado a una serie de técnicos en el formato “open source” de Moodle y se ha empezado a trabajar en el diseño del primer curso, que se prevé impartir durante 2014.

Se ha continuado trabajando sobre los instrumentos para la Formación del personal Delegado de Prevención: se ha finalizado el Manual, el cual se va a presentar en una Jornada prevista para febrero de 2014.

Se ha avanzado en la formación orientada al personal sanitario de los Servicios de Prevención, en colaboración con la Sociedad Vasca de Medicina del Trabajo y la Academia de Ciencias Médicas de Bilbao.

Osalanen Lan Osasuneko Unitatean (LOU), kalitatezko prestakuntza arautua eta espezializatua eman diegu EAEko Laneko Medikuntzako R4 barruko mediku egoiliarrei. Espezialitate horren irakaskuntza-unitate barruko irakaskuntza-programa egiaztatu eta baimendu bat da, eta EAErako da funtsean; edonola ere, izan dira unean uneko hitzarmen batzuk beste irakaskuntza-unitate batzuekin (Asturiasen eta Andaluzian).

Se ha impartido formación reglada y especializada de calidad en la USL de Osalan, a los MIR R4 de Medicina de Trabajo de la CAE, como dispositivo docente acreditado y autorizado dentro de la Unidad Docente de la citada especialidad para el Pais Vasco fundamentalmente, aunque puntualmente ha habido acuerdo con otras Unidades Docentes (Asturias y Andalucia).

EHUrekin izenpetutako hitzarmenean jasotako ekintzak egiten jarraitu dugu, OSALANek parte har dezan Lan Harremanen Eskolak irakasten duen LAPari buruzko masterrean. Antzeko harreman bat hasi dugu Mondragon Unibertsitatearekin.

Se han continuado desarrollando las acciones contempladas en el Convenio firmado con la UPV para la participación de OSALAN en el Master de PRL que imparte la Escuela de Relaciones Laborales. Se ha iniciado una relación análoga con Mondragon Unibertsitatea.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.

## 7.- OSASUNAREN ZAINTZA ETA LLGG-EN PREBENTZIOA

## 7.- VIGILANCIA DE LA SALUD Y PREVENCIÓN DE EEPP

Prebentzio-zerbitzuekin eta, batzuetan, gizarte-eragileekin elkarlanean, proiektu handiak lantzen jarraitu dugu; hala nola:

- Langileak jardunean dagoen bitartean eta ondoren izango duen laneko historia klinikoaren eta medikoaren eredu bat ezartzea. Arau-proposamen bat ari gara idazten.
- Enpresetan droga-mendetasuna prebenitzeko gidaliburua; 2014. urtearen hasieran argitaratu asmo dugu.

Se ha continuado trabajando –en colaboración con los Servicios de Prevención y, en su caso, con los agentes sociales- en los proyectos de largo alcance, como son:

- La implantación de un Modelo de Historia clínico-laboral, que acompañe al trabajador a lo largo (y después) de su vida laboral. Se está redactando una propuesta de norma reguladora.
- La guía para la prevención de las drogodependencias en las empresas, cuya edición está prevista para primeros de 2014.

Zuraren hautsaren eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko protokolo bat egiten hasi gara.

Se ha iniciado la elaboración de un protocolo de vigilancia de la salud específica de los trabajadores expuestos a polvo de madera.

Denon osasuna zaintzeko gidalerroak eta oinarrizko irizpideak lantzen jarraitu dugu, eta 2014. urtean zabaldu asmo ditugu.

Se ha seguido trabajando sobre las directrices y los criterios básicos en vigilancia de la salud colectiva, cuya difusión se prevé llevar a cabo durante 2014.

IT foroan lanean dihardugu, osasun-arazoak direla-eta luze lanik egin gabe egon ostean lanera itzultzen diren langileen osasuna ebaluatzeko betebeharra hobeto bete dadin.

Se está trabajando en el foro de IT para mejorar el cumplimiento de la obligación de realizar una evaluación de la salud de los trabajadores que reanuden el trabajo tras una ausencia prolongada por motivos de salud.

Lanari lotutako minbiziaren zaintza epidemiologikoaren oinarriak ari gara jartzen; batez ere, mesoteliomaren eta sudurreko sinuen minbiziaren zaintza epidemiologikoaren oinarriak. Hitzarmen bat egin dugu Osakidetzarekin eta Osasun Sailarekin, Osalanek berehala jaso dezan EAEn diagnostikatzen diren kasuen berri.

Se están poniendo las bases para realizar la vigilancia epidemiológica del cáncer derivado del trabajo, en particular del mesotelioma y del cáncer de senos paranasales, previo acuerdo con Osakidetza y el Dpto. de Salud para la comunicación directa e inmediata a Osalan de casos diagnosticados en la CAE.

Amaitu dugu 2012an hasitako azterlana, Laneko Segurtasun eta Osasunaren inguruko Erakunde eta Ikerketa Zentroen sarearekin (RICISST) elkarlanean egindakoa, "Silizearen ondorio kantzerigenoaren ebidentziaren laburpena" deritzona. Dokumentu bat egin dugu, eta 2014an zabalduko dugu.

Se ha finalizado el estudio iniciado en 2012 en colaboración con la red de Institutos y Centros de Investigación en Seguridad y Salud en el Trabajo (RICISST), consistente en la “Síntesis de la evidencia del efecto cancerígeno de la sílice”. Se ha confeccionado un doucmento, cuya difusión se efectuará durante 2014.

Kanpaina bat diseinatu dugu, eta egiten hasi gara, marmoldegietan silizioaren hautsaren eraginpean dauden langileen osasun-zaintzaren kalitatea ebaluatzeko. 28 enpresatan jardungo dugu, zuzenean edo besteren

Se ha diseñado y comenzado a ejecutar una campaña para la evaluación de la calidad de la vigilancia de la salud de los trabajadores expuestos a polvo de sílice en marmolerías, con la previsión de actuar en 28 empresas

prebentzio-zerbitzuen bidez; guztira, 166 langile kontrolatuko ditugu.

Lehentasunezko jarduera-eremuetako bat izan da amiantoaren eraginpean egon bide diren langileen gaixotasunei lotutakoa. Gaixotasun horiek tratatze aldera, zenbait ekintza egin ditugu:

• Amiantoaren eraginpean lan egin izanak eragindako gaixotasunen kasuak detektatu ahala ikertu. Guztira, 58 ikerketa egin ditugu 2013an (14 Araban, 25 Bizkaian eta 19 Gipuzkoan).

• Amiantoaren eraginpean egon bide diren langileen okupazio osteko osasunaren zaintza bermatu. 433 pertsona gehiago daude amiantoaren eraginpean egon bide diren langileen zerrendan.

• Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren amiantoari buruzko lantaldean parte hartu dugu.

Ezarritako helburuen betetze-maila oso egokitzat jo da.

directamente o a través de su SPA, con un total de 166 trabajadores.

Un ámbito de actuación prioritario ha sido el relacionado con las enfermedades debidas a la posible exposición de los trabajadores al amianto, para cuyo tratamiento se han desarrollado diversas acciones:

• Investigar los casos de enfermedades derivadas de una posible exposición al amianto que se van detectando, realizando un total de 58 investigaciones (A: 14, B: 25 y G: 19) durante 2013.

• Garantizar la vigilancia de la salud post-ocupacional a los trabajadores que hayan podido estar expuestos al amianto, con 433 nuevas incorporacionas al listado de posibles expuestos.

• Participar en el grupo de trabajo del amianto de la Comisión Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo.

Se considera altamente satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.

## 8.- LAP-AREN ARLOKO JARDUNBIDEEN KALITATEA

Orobat amaitu dugu 2012an hasitako kanpainaren 2. fasea. Kanpainaren helburua zen enpresetan LAParen kalitatea hobetzea. Ildo horretatik, 1. fasean bisitatutako enpresen segimendua egin dugu, 1. fasean zituzten hutsuneak zuzentzeko neurriak hartu dituztela ikusteko. Bigarren fasean, orain arte 47 enpresatan jardun dugu.

Orobat amaitu dugu 2012an hasitako kanpainaren 2. fasea. Kanpainaren helburua zen enpresetan LAParen kalitatea hobetzea. Ildo horretatik, 1. fasean bisitatutako enpresen segimendua egin dugu, 1. fasean zituzten hutsuneak zuzentzeko neurriak hartu dituztela ikusteko. Bigarren fasean, orain arte 47 enpresatan jardun dugu.

• Kanpaina horretan, besteren prebentzio-zerbitzuek egindako arrisku-ebaluazio ugari aztertu ditugu, eta zer eremu hobetu behar diren identifikatu dugu. Eremu horietan elkarrekin lan egiteko asmoa dugu.

Nabarmen egin dugu aurrera arrisku psikosozialen eremuan:

• Zenbait eztabaida-lantegi egin ditugu prebentzio-zerbitzuetako teknikariekin eta gizarte-eragileekin, eta zailtasunei eta hobekuntzarako proposamenei buruzko bateratze-saio bat egin dugu Confebaskekin.

• Arrisku Psikosozialen hastapenak deritzon gidaliburua egin eta argitaratu dugu.

• Laneko psikosoziologiari buruzko Osalanen IV. jardunaldiak antolatu ditugu.

• Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren arrisku psikosozialei buruzko lantaldean esku hartu dugu.

## 8.- CALIDAD DE LAS ACTUACIONES EN MATERIA DE PRL

Se ha mantenido la línea de trabajo consistente en la elaboración y difusión de instrumentos que ayuden a las empresas, especialmente Pymes, en su gestión de la PRL. Así, se están redactando: la Guía técnica para la PRL en la Construcción de Puentes, la Guía de seguridad de trabajos en altura, la Guía para la elaboración de un Pliego de Condiciones Técnicas en PRL para obras de construcción y se ha concluido la Guía para el mantenimiento seguro de piscinas.

Se ha llevado a cabo la 2ª fase de la campaña iniciada en 2012 para la mejora de la calidad de la PRL en las empresas, haciéndose el seguimiento de las medidas adoptadas por las empresas visitadas en la 1ª fase respecto a las deficiencias entonces encontradas. En esta etapa se ha actuado hasta la fecha en 47 empresas.

• Al hilo de esta campaña, se han analizado un importante número de las evaluaciones de riesgos realizadas por los SSPP ajenos, identificando las principales áreas de mejora, sobre las cuales se prevé trabajar en el futuro de manera conjunta.

Se ha avanzado de manera importante en el campo de los riesgos psicosociales:

• Se han realizado diversos talleres de discusión con tecnicos de Servicios de Prevención y con agentes sociales, así como una puesta en común sobre dificultades y propuestas de mejora con Confebask.

• Se ha elaborado y publicado la Guia de introdución a los Riesgos Psicosociales.

• Se ha organizado la IV edición de las Jornadas de Psicosociología Laboral de Osalan.

• Se ha participado en el grupo de trabajo de riesgos psicosociales de la Comisión Nacional de SST.

• Edukiak eta prestakuntzarako materiala ari gara prestatzen LAParen arloko teknikarientzat, arrisku psikosozialen arloko jardunbide egokien jakintza eta trukea sustatzeko. Gure asmoa da Osalanen webgunean berariazko atari bat sortzea, arrisku horien aurkako babesa sustatzeko Internet bidez.

Ezarritako helburuen betetze-maila oso egokitzat jotzen da.

• Se están desarrollando contenidos y material formativo orientados a técnicos de PRL, para fomentar el conocimiento y el intercambio de buenas prácticas en materia de riesgos psicosociales. La intención es crear un portal específico en la web de Osalan para fomentar la proyección de estos riesgos a través de internet.

Se considera muy satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.

## 9.- EZAGUTZA SORTZEA

2014an LAParen arloan ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-proiektuak egiteko diru-laguntzen deialdiaren oinarriak prestatu ditugu. Deialdia 2013ko abenduaren 30eko EHAAn argitaratu zen, eta 400.000 euroko diru-hornidura du.

LSOari buruzko jakintza sustatu dugu, baita maila guztietan sustatu ere. Horretarako, intereseko alderdiei buruzko jardunaldi tekniko hauek egin ditugu:

• Lan-gosaria, metalaren sektoreko adituekin, "Formación de Seguridad Laboral" aldizkariak babestua.

• EAEko ezbehar-kopuruari eta gaixotasun profesionalei buruzko urteroko txostenak aurkeztea. 2012. urtea.

• FITMAQ 2013. Industriari eta teknologiari buruzko goi-bilera 2013.

• ERANET-SAFERA europar proiektua aurkeztea, Osalanen ikerketarako diru-laguntzen esparruan.

• Enpresan bide-segurtasuna kudeatzeko jardunaldia.

• Jardunaldi teknikoa: sektorekako kanpainak EAEn. Elkarlanean, laneko arriskuen prebentzioaren alde.

• Jardunaldi teknikoa: Osasuna landuz, enpresa osasuntsua taxutu (Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin eta AENOR erakundearekin elkarlanean).

• Osalanek antolatutako laneko psikosoziologiari buruzko IV. jardunaldiak.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

## 9.- GENERACIÓN DE CONOCIMIENTO

Se han preparado las bases de la convocatoria de subvenciones para proyectos de investigación, desarrollo e innovación en materia de PRL a desarrollar durante 2014, la cual se ha publicado en el BOPV de 30 de diciembre de 2013, con una dotación económica de 400.000 euros.

Se ha promovido el conocimiento en materia de SSL a todos los niveles, mediante la celebración de las siguientes Jornadas técnicas sobre aspectos de interés:

• Desayuno de trabajo con expertos del sector del metal, patrocinado por la revista “Formación de Seguridad Laboral”.

• Presentación de los informes anuales de siniestralidad y Enfermedades Profesionales de la CAE. Año 2012

• FITMAQ 2013. Cumbre industrial y tecnológica 2013.

• Presentación del proyecto europeo ERANET-SAFERA en el marco de las subvenciones de investigación de Osalan.

• Jornada sobre Gestión de la seguridad vial en la empresa.

• Jornada Técnica: campañas sectoriales en la C.A.E. Trabajando juntos para la prevención de riesgos laborales.

• Jornada Técnica: Desde la promoción de la salud a la empresa saludable (en colaboración con el Dpto. de Salud del Gobierno Vasco y AENOR).

• IV Jornadas de Psicosociología Laboral de Osalan.

Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.

## 10.- INFORMAZIO ETA SISTEMAK

Osalanen informazio-sistema integratua garatzen ari gara oraindik ere:

• Lan Zuzendaritzaren J73 datu-basea eguneratu ostean, 2012an garatutako aplikazioak eta funtzionaltasunak abian jartzen ari gara ekoizpenaren arloan. Aldi berean, hasieran identifikatu ez genituen funtzionaltasun batzuk eraikitzen ari gara.

• Datuak antolatu eta sartu ditugu laneko osasunari buruzko informazio-sisteman Prebentzio Zerbitzuen Gutxieneko Datu Multzoan oinarrituta dago sistema hori. Gauzak espero bezala doaz.

## 10.- INFORMACIÓN Y SISTEMAS

Se sigue trabajando en el desarrollo del Sistema de Información integrado de Osalan:

• Se encuentra en proceso la implantación en producción de los aplicativos y funcionalidades desarrollados en 2012, previa actualización de la base de datos J73 de la Dirección de Trabajo, a la vez que se construyen algunas funcionalidades no identificadas inicialmente.

• Se ha realizado la organización y carga de datos en el sistema de información de salud laboral basado en el Conjunto Mínimo de Datos de los SSPP, que avanza según lo previsto.

• Osasun-ekintzetarako baimendutako prebentzio-zerbitzuen erregistroa ezarri dugu. Doikuntza teknikoren bat egin behar dugu Osalanen webgunean argitaratu aurretik.

Gaixotasun Profesionalaren Susmoa Jakinarazteko Sistema zabaltzen jarraitu dugu EAEko osasun-zerbitzuen eta prebentzio-zerbitzuen artean, eta ekintza hauek egin ditugu:

• Osakidetzako ospitale-zerbitzuetako osasun-langileak prestatu.

• Euskarri informatikoa garatu, Osabideren, Osasun Sailaren eta Gizarte Segurantzako Laneko Istripuen eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateen (MATEPSS) arteko lankidetzarako.

• Gaixotasun Profesionalaren Susmoaren 802 jakinarazpen jaso ditugu, eta 1.014 izapidetu ditugu (horietatik, 2012an egindako jakinarazpenak dira 402).

EAEko LSOaren arloko adierazleei buruzko proposamen bat egin dugu. Proposamen hori LAPean inplikatutako eragile nagusiekin eztabaidatzeko asmoa dugu.

EAEko ezbehar-kopuruari eta gaixotasun profesionalei buruzko urteroko txostenak egin eta jendaurrean aurkeztu ditugu.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

• Se encuentra finalizada la implantación del Registro de los Servicios de Prevención autorizados para las actividades sanitarias, a falta de algún ajuste técnico previo a su publicación en la web de Osalan.

Continúa el despliegue del Sistema de Comunicación de Sospecha de Enfermedad Profesional por parte de los servicios sanitarios y de los SSPP de la CAPV, mediante la ejecución de las siguientes actuaciones:

• Formación del personal sanitario de los servicios hospitalarios de Osakidetza.

• Desarrollo del soporte informático para la interoperabilidad con Osabide, el Departamento de Salud y las MATEPSS .

• Recibidas 802 Comunicaciones de Sospecha de Enfermedad Profesional y tramitados 1.014 casos (402 correspondientes a comunicaciones realizadas en 2012).

Se ha definido una primera propuesta de Indicadores de SST en el ámbito de la CAPV, la cual se prevé debatir con los principales agentes implicados en la PRL.

Se han elaborado y presentado públicamente los correspondientes informes anuales sobre Siniestralidad y Enfermedad Profesional en la CAPV.

Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.

11.- PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

Aurrera egin dugu Osalanen dokumentu-kudeaketa hobetzeko prozesuan. Dokumentu-sailak identifikatu eta bereizi ditugu, eta erakundearen esku dagoen informazioa erraz eta azkar eskuratzeko moduan artxibatu.

Kanpoko kontsultak kudeatzeko sistema bat lantzen jarraitu dugu. Ildo horretatik, harremanetan jarri gara Zuzenean zerbitzuarekin, eta Osalanen zer eredu ezarri erabaki dugu.

Osalaneko langileak prestatzeko plan bat egiteko proiektuaren lehenengo faseari heldu diogu; zehazki, metodologia bat sortu dugu, langileek zer prestakuntza-premia dituzten identifikatzeko, haien zereginak eta gaitasunak abiapuntutzat hartuta.

Aurrekontuaren segimendu eta kontrol zorrotza egin dugu, eta, hiru hilez behin, txosten bat egin dugu egoera ebaluatze aldera.

Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko lantalde, batzorde eta foro hauetan hartu dugu parte:

• Gihar eta hezurretako gaitzei buruzko lantaldea, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalarena.

• Eraikuntzaren arloko lantaldea, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalarena.

• Nekazaritzaren arloko lantaldea, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalarena.

11.- DESARROLLO PERSONAL Y PROFESIONAL DE LAS PERSONAS

Se ha avanzado en el proceso de mejora de la gestión documental de Osalan, identificando y caracterizando las series documentales, a efectos de su archivo en condiciones que permitan el acceso sencillo y rápido a la información que obra en poder del Organismo.

Se ha continuado trabajando en un sistema para la atención de consultas externas, estableciendo contacto con el servicio Zuzenean y definiendo el modelo a implantar en Osalan.

Se ha abordado la primera fase del proyecto para la elaboración de un Plan de Formación interna, consistente en la creación de una metodología para la identificación de las necesidades formativas del personal, a partir de sus funciones y competencias.

Se ha mantenido un estrecho seguimiento y control del Presupuesto, realizando informes trimestrales de evaluación de la situación.

Se ha participado en los siguientes grupos de trabajo, comisiones y foros sobre Seguridad y Salud Laboral:

• GT de TMEs de la Comisión Nacional de SST

• GT de Construcción de la CNSST

• GT de Agricultura de la CNSST

| | |
|---|---|
| • Amiantoari buruzko lantaldea, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalarena. | • GT de Amianto de la CNSST |
| • BINVAC taldea, Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalarena. | • Grupo BINVAC del INSHT |
| • Laneko ezbehar-kopurua aztertzeko taldea, Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalarena. | • Grupo Estudio de la Siniestralidad Laboral del INSHT |
| • BSTPMAQ taldea, Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalarena. | • Grupo BSTPMAQ del INSHT |
| • AEN/CTN 15, Aenor erakundearena. | • AEN/CTN 15 de Aenor |
| • AEN/CTN 81, Aenor erakundearena. | • AEN/CTN 81 de Aenor |
| • AEN/CTN 81/ SC 3, Aenor erakundearena. | • AEN/CTN 81/ SC 3 de Aenor |
| • AEN/CTN 81/SC 3-GT B12, Aenor erakundearena. | • AEN/CTN 81/SC 3-GT B12 de Aenor |
| • AEN/CTN 81/SC 3-GT A2, Aenor erakundearena. | • AEN/CTN 81/SC 3-GT A2 de Aenor |
| • Amiantoari buruzko taldea, Aenor erakundearena. | • Grupo de Amianto Aenor |
| • AENOR erakundearen azpibatzordea. | • Subcomité de AENOR |
| • Amiantoari buruzko lantaldea, MYSS-CCAA Batzorde Tekniko Mistoa. | • GT de Amianto Comité Técnico Mixto MEYSS-CCAA |
| • Laneko osasunari buruzko txostena - Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Publikoaren Batzordearen lantaldea. | • Ponencia Salud Laboral-GT de la CSP del CI del SNS |
| • Segurtasun eta Osasunerako Zentroarteko Lantaldea. | • Comité de Seguridad y Salud Intercentros |
| • Sailarteko REACH lantaldea. | • GT REACH Interdepartamental |
| • Gaixotasun Profesionalaren Susmoa Jakinarazteko Batzordea. | • Comisión Comunicación Sospecha EEPP |
| • Gipuzkoako eta Bizkaiko azpiegitura handiko obretan LAParen segimendua egiteko batzordeak. | • Comisiones para seguimiento de la PRL en Obra Pública de Grandes Infraestructuras de Gipuzkoa y Bizkaia |
| • AEN/CTN 180 Obretan aldi baterako lanak egiteko ekipamendua. | • AEN/CTN 180 Equipamiento para trabajos temporales en obra |
| • Euskadiko DEA Sailarteko Batzordea. | • Comisión Interdepartamental IDE Euskadi |
| • Industria Segurtasuneko Euskal Kontseilua. | • Consejo Vasco de Seguridad Industrial |
| • Basequim. | • Basequim |
| • Saf€ra. | • Saf€ra |
| • Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren amiantoari buruzko hitzarmenaren lantaldea. | • GT Convenio INSS Amianto |
| • Ezintasunak ebaluatzeko taldeak (EVI) Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala, Bizkaia eta Gipuzkoa. | • EVI INSS Bizkaia y Gipuzkoa |
| • IT FOROA. | • FORO IT |
| • Laneko Medikuntzaren eta Erizaintzaren arloko Prestakuntzarako Argitalpen Batzordea, UNIVADIS plataforma. | • Comité Editorial para la Formación en Medicina y Enfermería del Trabajo, Plataforma UNIVADIS. |
| • Tramitaguneren lankidetza-taldea. | • Grupo de colaboración de Tramitagune |
| Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da | Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos. |